

OSOGUNEKO ERAKASKERA.

1997/98ko IKASURTEA.

ELHEKETA : ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1. Zertako bihotza kantari zabilan Piarres?
2. Nola zen udaberria Senperen? Haizehegoa?
3. Zoin sorginkerietaz mintzo da idazlaria?

Piarres.

Udaberria

Egun hartarik, bihotza kantari bazabilan beraz Piarres Oihanaldekoa. Mundua mundu egin den tenore hartaz geroztik, Jainkoak berak gehienera erakatsi kantu garbia jali zitzaion, bihotz xoko xokoan...

Eta hala hala, handik laster, bazterrak oro kantuz hasi ziren heke ere, dudarik gabe Piarresen bihotzak bezala egiteko.

Udaberria heldu zen, dena musker, ferde ferdea, dena maitetasun. Iduri zuen, han, bere barne hartan, zainak oro hantzen¹ ari zitzaizkola Eskual-Herriko lurrari, eta lur harek, ama on baten pare, e ditia emaiten ziotela gauza guziera, guziera betan. Mila harrapots suma zitezken jada, landa, sorho, larretan, axaletik hurbil, xinhairri mixteriozko batzu, aztaparka, kanporat beharrez ari balire bezala. Sahatsak, zur-xuriak muskiltzen² jada hasiak ziren, ur-bazterretan.

Haize-hegoa firurikan heldu zen Nafarroako mendi handier beheara, iguzkiaren musu bero bero bat berekin zakarkela, eta musu harekin mendiak maiteki mastakaturik,³ mendi heieri beren soin xuri pullita urtarazten ziotela. Nork erran du bada, Eskual-Herriko sorgin bat dela *haize hegoa*? Bai, sorgina; bainan sorginetan maiteena, uda-berrian, uda-azkenean bezala, oro maiteak egiten dituen sorgina.

*Hegoa firurikan mendi bazterretan;
Odola harrotzen du orori zainetan;
Dantza piko⁴ bat niro eman, lorietan!*

(J. B.)

Bainan, sorginkeria guziak pekatu behar mundu huntan! Mendietako elhurrak oro huna orai, harrokeri beheiti burrunbaka, j... eka. Eta beheko haran, ibar eta zelaiak hunkitu orduko, berehala, eta gaitzituak izan balire bezala, beltz beltza egiten ziren, eta hasarre gaitzean emaiten. Gaixtatuak zinez, oro bazeramazkatzen berekin itsaso samurrari buruz, lurak larrutuz asikian,⁵ arbolak errotik eremanez, errabia gorrian. Phago handi batzu, luze luzea heldu ziren, erroak aintzin, hainbertze urthez aztaparkatu zuten lur maitea berekin oraino garreiatuz.

ADITZ IKASKUNTZA

31. Ari zitzaizkola 32 Suma zitezken
33. Ari balire bezala 34 Zakarkela
35. Bazeramaz katen.

31. IZAN Régime indirect Indicatif Imparfait

Pluriel : Hek ziren = ils étaient
Hek (eux) zitzaizkitan (à moi) = ils m' étaient
zitzaizkizun (à vous) = ils vous étaient
zitzaizkion (à lui) = ils lui étaient
zitzaizkigun (à nous) = ils nous étaient
zitzaizkizuen (à vous) = ils vous étaient
zitzaizkien (à eux) = ils leur étaient

32. IZAN - Potentiel

Présent	Imparfait
Ni izan maiteke = je peux être	N. izan maiteken = je pouvais être
Hi " maiteke =	H. " maiteken = tu pouvais être
Zu " maiteke =	Z. " maiteken = vs pouviez être
Hura " maiteke =	H. " maiteken = il pouvait être
Gu " maiteke =	G. " maiteken = us pouvions être
Zuek " maiteketen =	Z. " maiteketen = vs pouviez être
Hek " maiteke = etc.	H. " maiteken = ils pouvaient être

33. IZAN Suppositif - Eventuels

1^{ere} Forme (si j'étais)

2^{eme} Forme (si j'étais)

3^{eme} Forme (si j'avais été)

Ni izaiten banintz
Hi " " bahintz
Zu " " bazine
Hura " " balitz
Gu " " bagine
Zuek " " bazimezte
Hek " " balire

izan banindadi
" " bahindadi
" " bazinte
" " baladi
" " baginte
" " bazintezte
" " balite

izan banintz
" " bahintz
" " bazine
" " balitz
" " bagine
" " bazimezte
" " balire